

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE VELASCO. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA.

DUELA MENDE BAT TXERRIA HILTZEN, GARRALDAN

Artikulua ilustratzen duen argazkiak 100 urte inguru ditu eta Garralda herriko Ezkerrena etxean txerria hiltzeko tradizioaren une bat jasotzen du. Emakume bat terrenari eusten ari zaio, txerriaren odola jaso eta mugitzen duen bitartean, koagulazioa saihesteko. Une hori erabakigarria da, odola gero, odolkiak egiteko, beste osagai batzuekin nahastuko baita. Irudian, ezke-

retik eskuinera, Orosia Pedorena, Valentina Orbara, Cornelio Iriarte (argazkilariaren koinatua), Eusebio Pedorena, Isidoro Orbara eta Manuel Pedorena identifikatu daitezke. Argazkiaren egilea Jose Velasco da, jatorriz Leringoa (1897) eta 1974an Iruñean hila. Lanbidez maisua izan zen, eta hainbat zaletasun landu zituen; besteak beste, argazkilari, organista eta erlojugile ari-

tu zen. Batzuetan, praktikante gisa ere jardun zuen. Garraldako lanaz gain, Oteitza, Lerin eta Eritzegoitin ere aritu zen maisu. Utzi dizkigun irudietan, 104 negatibo, gehienak familia girokoak dira eta Garraldako bizitzako hainbat une dokumentatzen dituzte, baita bere pertsonaiarik nabarmenenak ere; horien artean, Jesus Basiano margolaria.